

UDALAREN ERAKETA
ERAKETA-BATZARRALDIKO AKTA

BILDUTAKO ZINEGOTZI
HAUTATUAK

EAJ-PNV/EA Koaliziokoak:

Jon Jauregi Bereziartua J.
Josi Insausti Mujika J.
Arantza Aseginolaza Azkargorta A.
Ana Isabel Asla Egialde A.
Jon Berbel Aiestaran J.
José Antonio Girado Tristán J.
Patxi Plazaola Muguruza J.
Pello Garaialde Goikoetxea J.

EH talde politikokoak:

Iñaki Andoni Antxia Etxebarria J.
Maria Arrate Izagirre Iriondo A.
Leire López Zurutuza A.
Aimar Larrea Garín J.

(PSOE)-PSE-EE/PSOE talde politikokoak:

Jose Luis Elortza Mujika J.
M^a Carmen Gómez Mediavilla A.
Pablo Parra Moreno J.

PP talde politikokoa:

Julio Herreros Serna J.

ETORRI GABEKO ZINEGOTZI
HAUTATUA

PP talde politikokoa:

Jorge Juan Outeiral Fernandez J

Beasaingo Udaletxeko Batzar Aretoan eta mila bederatziehun eta laurogeita hemeretziko uztailaren 3ko eguerdiko hamabietan, kargua uztera doan Alkate-Udalburu J.ak deituta, lehenengo deialdian bildu dira joan zen ekainaren hamahiruan egindako Udal-hauteskundeetan zinegotzi hautatu eta aldarrikatuak izan zirenak.

Halaber ekitaldian izan da eta ekitaldiko fede ematen du Itziar Arostegi Apaolaza Udaleko Idazkari A.ak.

Idazkariak, batzarraldi honen helburua Udalaren eraketa dela adierazi du, horrela, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorretako Lege Organikoaren 195.1 artikulua eta Korporazio Lokalen Antolamendu eta Funtzionamenduko Erregelamenduko 37.1 artikulua agindutakoa betez. Batzarraldia ondorengo gai-zerrendaren arabera egin da:

- Udalbatzaren eraketa.
- Alkatearen hautaketa eta kasua bada, karguaz jabetzea.

Idazkariak batzarraldiari hasiera eman ondoren, Adineko Mahaia eratu da, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 195.2 artikuluan aurrikusitakoa betez, eta Mahaia, honako zinegotzi hauek osatuta gelditu da: Patxi Plazaola Muguruza zinegotzi J. hautatuak, mahaiburu berau, zinegotzi hautatu zaharrena delako eta Leire López Zurutuza zinegotzi J. hautatuak, zinegotzi hautaturik gazteena delako. Idazkari gisa, Itziar Arostegi Apaolaza A.ak ihardun du, batzarraldi honetako Idazkari denak alegia.

Mahaiko Idazkariak, banan-banan berari alde aurretik entregatu zaizkion eta zinegotzi hautatuen nortasuna egiaztatzen duten egiaztatutun guztiak irakurri ditu eta Mahaikideek, Hauteskunde-barrutiko Batzordeak Udaletxe honetara bere garaian bidali zituen ziurtagiriekin bat datozela eta zinegotziek bateraezintasun eta ondasunen aitortpena egin dutela ikusi dute.

UDALBATZAREN ERAKETA

Aurreko eragiketa egin ondoren, ikusi da batzarraldi honetara hamasei zinegotzi hautatu etorri direla, beraz, legezko gehiengo absolutua dagoela kontuan hartuta, Udala eratuta gelditu da. Adineko Mahaiburuak, apirilaren 5eko 707/1979 Erret Dekretuak ezarritako zinegite-formula irakurri du, izan ere, zinegotzi hautatuek beren karguez osotasunez jabetzeko, Konstituzioari men egingo diotela zin egin edo agindu egin behar baitute eta halaber hurrenez hurreneko lege edo araudietako gainerako betebeharrak beteko dituztela ere:

- EAJ-PNV/EA Koalizioko zinegotziek, legezko inposaketagatik men egin diote ezarritako formulari.

- EH alderdiko zinegotziek, ondorengo erantzun dute: "Euskal Herriak ez du Konstituzio Espainola onartu, konsziente eta aktiboki uko egin ziolako.

Udalbatzar honetan, Knstituzio hori egin edo onartzera behartuak izatea demokraziaren aurkako inposaketa da. Gure ustetan, inposaketa bat da, ez soilik gure etsipen pertsonalen kontra doalako, baizik eta gure herriaren gehinegoaren iritzia gaitzetsi eta bortxatzea inplikatzan duelako. Horregatik, Euskal Herriaren eskubide demokratikoak errespetatzen ez dituen konstituzioarekiko edozein aldeotasun eta adierazte errefusatzen dugu sendo eta tinko. Beraz, aipatu formulismoa "legezko inposaketagatik" betetzera mugatzen gara.

Udaletan, egunero buruturiko lanetik, mobilizazioetatik, masa borrokatik eta gure ordezkotasun politikotik eraldakuntza sozialerako proiektu abertzale

bat indar eta ilusioz defendatuko dugula zin diogu gure herriari eta horrela diogu publikoki:

- Zin egiten dugu gure Nazio Nortasuna berreskuratzeko ausarki borrokatuko dugula, euskara, zeinu esberdintzaile espezifikoak, gure herrian bizi garenon ondaretzat defendatuz.

- Desberdintasun, bazterketa eta bidegabekeria oinarritzen den gaurko gizartea, justizia sozialean, aberastasunen bidezko banaketan eta kudeaketa publikorako herri protagonismoan errotutako gizartea bilakatzera bideratuko proiektu politikoaren alde indarrak ez gordetzera konprometatzen gara.

- Herriari hitza ematea edozein sisteman demokratikoren ezinbesteko hastapena, bakerako nahitaezko baldintza, onartzearen alde lan egiten jarraituko dugula zin egiten dugu.

- Udal ireki eta demokratikoak bultzatzeko konpromezua eta lana hartzen dugu bertako konpromezu zuzenka sektore sozial ezberdinak eta, orohar hiritar guztiak izan daitezzen saiatuz.

Euskal Herritarrok -eko hautatuok, tinko eta etengabeki aipaturiko helburu hauen alde aritzera behartzen gaitu.

- (PSOE)-PSE-EE/PSOE alderdiko zinegotziek, men egin diote ezarritako formulari.

- PP alderdiko zinegotziak men egin dio ezarritako formulari.

Hurrengo pausoa, Alkatea hautatzea eta izendatzea da.

ALKATEAREN HAUTAKETA

Batzarraldia berriro hasita, Idazkariak, zera adierazi die bilduei, alegia, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako ekainaren 19ko Hauteskunde Erregimen Orokorreko 5/1985 Lege Organikoko 196. artikulua xedatzen duenaren arabera, Udalbatzaren Eraketa-batzarraldian bertan, Alkatea hautatu behar dela agindu horretan bertan ezarritako prozeduraren arabera. Prozedura hori ondorengoa da:

- Zerrendaburu diren zinegotzi guztiak izan daitezke hautagai.

- Bertan bildutako zinegotzi hautatu guztiak dira hautesle.

- Hautaketa, isilpeko txartel bidez eta bozketa bakarra eginez burutu behar da.

- Botoen legezko gehiengo absolutua lortzen duen hautagaia izango da hautatua, beraz, gutxienez ere, bederatziko boto beharko ditu hautatua izateko.

- Bozketa honetan ezein hautagaik ere gehiengo absoluturik lortzen ez badu, botorik gehien lortutako zinegotzi-zerrendaburu denak automatikoki Alkate aldarrikatuko da. Berdinketa kasuan, zozketaz ebatziko da.

Horren ondorioz, ondorengo zinegotzi hautatuak aldarrikatu dira Alkategai:

JON JAUREGI BEREZIARTUA J. zerrendaburua	EAJ-PNV/EA	Koalizioko
ANDONI ANTIXIA ETXEBERRIA J. JOSE LUIS ELORZA MUJICA J. zerrendaburua.	EH alderdiko zerrendaburua (PSOE)-PSE-EE/PSOE alderdiko	
JULIO HERREROS SERNA	PP alderdiko zerrendaburua.	

Idazkariak, hautesle bakoitzari txartela eman dio hautagaien izenekin eta aldi berean adierazi egiten die guztiei, bertan, Alkatetarako bozkatzen duten Zinegotziaren izen-deiturak jarri behar dituztela eta txartelak tolestatuta entregatu behar dituztela.

Txartel guztiak jaso ondoren, botoen zenbaketa egin da. Guztira hamaisei boto eman dira eta horietatik **hiru zuriak** izan dira. Gainerako txartelak ozenki irakurri ditu Idazkariak, bakoitzean Alkatetarako proposatuta dagoen zinegotziaren izen-deiturak esanez. Horrela, ondorengo boto-kopuruak izan dituzte:

JON JAUREGI BEREZIARTUA Jaunak.....	12
boto	
JULIO HERREROS SERNA jauank	boto 1

Bozketako emaitza ikusita eta EAJ-PNV/EA Koalizioko zerrendaburuak botoen legezko gehiengo absolutua lortu duela kontuan hartuta, **JON JAUREGI BEREZIARTUA J.** aldarrikatu da automatikoki Udal honetako Alkate.

Jarraian, hautatua izan den JON JAUREGI BEREZIARTUA J.ak, Udal honetako Alkate-kargua onartzen duela adierazi du, aldezturik hauteskunde-legean ezarrita dagoen legezko formularen arabera hitzemandakoa eginez eta kargua eman dion Udalbatza Osoaren aurrean Alkate-kargua hartu du,

egungo xedapenek damaizkioten prerrogatiba, eskubide eta obligazio guztiekin.

GERTAKARIAK

Alkate jaunak: “Egunon eta eskerrak etorri zareten guztioi:

Hastera goazen legealdi honetan, gure taldeak hiru helburu nagusi izango ditu:

1- Lehendabizi, pake-prozesuari aurre egitea eta bide honetan eman behar diren pausoak ematea, kontutan izanik, azkenean pakea eraikitzeko alderdi eta agente guztien partaidetza beharrezkoa izango dela.

2- Udal ordezkarien batzarrean parte hartzeko borondatea azaltzea.

3- Gobernu-programa betetzea.

Hiru helburu horien inguruan saiatuko naiz udal gobernua egiten eta orain arte bezala Beasaindarren alde lana egingo dut.

Bukatzeko eskerrak eman ni Alkate izata posible egiten duten guztiei, botoa eman didaten herritarrei eta gaur hemen niregan konfidantza jarri duzuenoi.”

Amaitu aurretik, Alkateak hitz egiteko aukera eman du.

Publikoaren artean dagoen “Bada garaia plataformaren” ordezkariak honela dio:

“Beasaingo sei preso politiko gartzeletan daude. Jadanik bi kalean egon behar lirateke, baina bahituta dauzkate. Plataforma bat eratu zen euskal presoak Euskal Herrira, gaixoak eta hiru laurdenak beteta dauzkatena etxera aldarrikatuz.

Orain arteko Alaktearen jarrera ona aipatzeaz gain, plataforma honekin bat egiteko eskatzen dizuegu. Egiten diren ekarpenak plataformak onartu egingo ditu. Denok daukagu lekua plataforma honetan. Pensatzen dugu mmomentu honetan Euskal Herriari hitza eman behar zaiola.

Ekitaldi formala amaitu ondoren, kargua utzi duten zinegotziek, Beasaingo armarridun dominak ezarri dizkiete zinegotzi berriei.

Eta besterik gabe, bilera hamabiak eta hogeita bostetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.